



Erabakia, 2023ko maiatzaren 17koa, UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena, zeinaren bidez akats material bat zuzentzen den AZPkoek 2022/2023ko udan euskara ikasteko aurkeztutako eskarien behin behineko zerrendetan.

Gertakariak

2023ko apirilaren 18an Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak argitara eman zuen 2022/2023 ikasturteko udan (uztailetik irailera) euskara ikastaroak eskatzeko deialdia, eta maiatzaren 9ko erabakiaren bidez onartuen eta baztertuen behin behineko zerrendak argitaratu zituen.

Akats material bat antzeman dugu erabakia atxikitako behin behineko zerrendetan, pertsona bat agertzen delako liberazioa ez dagokiona, zerbitzuko arduradunaren kontrako lan-txostena aurkeztu zuelako.

Zuzenbideko oinarriak

Lehena.- Honela dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak) 109.2 artikuluan: «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Bigarrena.- Deialdian argi eta garbi esaten zen bertan parte hartzeko baldintzetako bat zela zerbitzuaren arduradunaren aldeko lan-txostena aurkeztea. Ikusi dugu liberazioaren eskatzaileak aurkako lan-txostena aurkeztu duela, eta, beraz, zerrendako akats materiala zuzendu behar dugu.

Resolución de 17 de mayo de 2023 de la vicerrectora de Euskara, Cultura e Internacionalización de la UPV/EHU, por la que se procede a rectificar el error material advertido en las listas provisionales de solicitudes del personal del PAS para estudiar euskera en el verano del curso 2022/2023.

Antecedentes

El 18 de abril de 2023 la vicerrectora de Euskara, Cultura e Internacionalización publicó la convocatoria para tomar parte en los cursos de verano (julio-septiembre) del curso 2022/2023, y mediante resolución del 9 de mayo publicó las listas provisionales de solicitudes del PAS admitidas y desestimadas.

Revisado dicho acuerdo se ha advertido un error material en las listas provisionales al incluir en la misma a una persona que de acuerdo a la convocatoria no le correspondía la liberación por haber presentado informe laboral desfavorable del responsable del servicio.

Fundamentos jurídicos

Primero.- Conforme al artículo 109.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, *“Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos.”*

Segundo.- La convocatoria preveía expresamente entre los requisitos para la participación en la misma presentar informe laboral favorable del/la responsable del servicio. Advertido que la persona solicitante de la liberación ha presentado el informe laboral desfavorable se procede a la rectificación del error material cometido.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN
ARLOKO ERREKTOREORDEZTA
VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA E
INTERNACIONALIZACIÓN

Erabaki dut:

Lehenengoa: Egindako akats materiala zuzentzea 2023ko udako ikastaroen behin-behineko zerrenda zuzenduak argitaratzea

Bigarrena: Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazio auzietarako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean.

Leioan, 2023ko maiatzaren 17an

Dispongo:

Primero: Rectificar el error material cometido y publicar las listas provisionales corregidas de los cursos de verano 2023.

Segundo: Contra la presente resolución podrá interponerse potestativamente recurso de reposición ante el Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses.

Leioa, a 17 de mayo de 2023

34086833M
MARIA JUNCAL
GUTIERREZ (R:
Q4818001B)

Firmado digitalmente
por 34086833M MARIA
JUNCAL GUTIERREZ (R:
Q4818001B)
Fecha: 2023.05.17
13:38:50 +02'00'

M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea
Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización

